

Donostian, mila bederatzireun eta berrogeitamairugarren urteko Bagila-Garagarrilaren ogetaseian, Ekautaren Jauregian, Etxaide jauna maipuru dala ta Irigarai, Lekuona, Gorostiaga ta Oleaga Euskaltzainak bildurik, egiten dau Euskaltzaindiak gaurko daituteko batzarra.

Villasante jaunak ezin etorria adierazo dau.

Araudizko otoitzaz emoten dako asiera.

Etxaide jaunak barri bi damoz. Bata Euskaltzaindiaren **Euskera** aldirokoaren gertakuntzak aurrera doazala ta ia amaiturik dagozala; au dala-ta, Oleagak diño aldiroko ori argitaratzeko bear dau baimena lortzeko, arazo oneitan dabilen Ordeleriaz gaz itz egin ebala ta uste dabela baimen ori laster artuko dala. Bestea, Gipuzkoako Ekautak, urte-sariz bost mila peseta emon dituala. Au dalata erabagi da, Ekautari orri eskerrak emotea, ta Etxaide jaunak diño emon dautsazala.

Oleaga jaunak adierazoten dau Bizkaiko Jakintza-Batzordeak, Euskaltzaindiaren etxea txukundu ta edertzeko asmoa aurrera daroala ta gai onezazko gertakizunetan daragoiola. Pozik entzuten dira barri oneik.

Gorostiaga jaunak adierazoten dau "Vocabulario del Refranero Vizcaino de 1596" deritxon liburutxo argitaratu daua. Ijeki bat damotso Euskaltzaindiari ta gogoz ikusi ta azertzen da. Zorionak eskintzen dakoz egileari.

Beste barik eta araudizko otoitzaz amaitzen da batzarra.

Euskaltzainburua

I. M.^a Etxaide

Zadorlaria

Nazario Oleaga